

noaua

Ainhoa Intxaurrendieta:
“Arrazoi genuela dio epaiak”

Aginagako festak,
iruditan

Igande honetan
Buruntzaldeko Ibilbideak
osatzeko aukera



Larunbatean, Mundualdia Festa

“Kolore anitzeko herria eraiki nahi dugu”


PSU
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industria serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



TAILANDIA

NOAOA
BIDAIK

943 373 613

BIDAIK
TALDEAN

IRTEERA MAIATZEAN

LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus

noaoa.eus

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

**ZURE BETILEAK APAINDU
GURE TRATAMENDU BERRIEKIN!**

- LIFTING-a
- BETE ETA LUZATU
- MOLDEATU ETA TINTATU

Eguerdian irekital Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Albistea iruditan

Aginagan ere, puntu beltza

Puntu Beltzik Ez Usurbil jasanga- rri eta seguru baten alde lanean jarduteko urte hasieran osaturiko herri plataformak tren nahiz errepide pasabide ezberdinetan zeuden hainbat arrisku guneez neurriak hartzea eskatzen zien erakundeei. Puntu beltze- tako bat baino gehiago errepidean dau- de, besteak beste Aginagan.

Aginaga bitan zatitzen du N-634-ak eta "horrek batetik bestera modu seguruan zeharkatzeko arazo ugari sortzen ditu. Abiadura gutxitzeko hainbat neurri hartu baziren ere, ez dira aski, eta, neurri ge- hiago eta eraginkorragoen beharra dago" gogorarazten zuen aipatu herri platafor- mak martxoan frontoian egin zuen lehen agerraldian. Jai hauetan ere nabaritu da. Oinezkoek errepidea zeharkatzeko kontu handia izan behar autoen abiadura zela eta. Eta horrekin batera, ondoko argaz-



Haur-kotxeekin joanez gero, errepidea eta espaloia- ren artean dagoen tartea gaintzea ez da erraza.

kiko zehrabidean esaterako, errepidea zeharkatzeko nahiko lan, haur-kotxeekin

joanez gero, errepidea eta espaloia- ren artean dagoen tartea gaintzea ez da erraza.

Laburrean

Larunbat honetan, 1955eko kinto afaria

Aurreko zenbakietan bazkaria iragarri izan dugun arren, afaritarako batuko dira Atxegan. Gaueko 21:00etan jate- txean bertan elkartzeko deia egin dute. Izen-ematea urriaren 11n amaitu zen.

Azaroaren 10ean batuko dira 1974an jaiotakoak

Azaroaren 10erako antolatu dute afa- ria Saizarren. "Animatu!", luzatu dute gonbita. Izen emateko mezua bidali edo deitu 605 730 816 telefono zenba- kira (Josune).

1952an jaiotako- en bazkaria

Abenduaren 2an bilduko dira bazka- ritarako Antxeta jatetxean 14:00etan. Izen emateko deitu aurrez, azaroaren 24a baino lehen, 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Duintasunaren aldeko aktibistak

2012ko apirila, Grezia.

77 urteko jubilatutako batek bere buruaz beste egin zuen Greziako Parlamentuaren aurrean. Dimitris Christoulas zuen izena. Ohar bat utzi zuen idatzita: "Ez dut ikusten beste soluziorik, ezen nire bizitzari amaiera duin hau ematea baino, ez baitut nire burua ikusi nahi zabor ontzietan bilatzen. Uste dut etorkizunik gabeko gazteria hori armetan altxatuko dela egunen batean eta herri honen traidoreak Sintagma plazan zintzilikatuko dituztela". Oihartzun handia izan zuen gertaerak. Krisiak oke-

rrera egin zuen, murrizketak areagotu egin ziren... Oso atzean geratu dira Greziako kontuak. Desmemorian. Sei urte geroago, bestelakoak dira lerroburu nagusiak baina greziarren egoerak ez du itxura onik. Jubilatuen errealitateak ez du hobera egin. Alderantziz. 2012tik hona prekarietatea orokortu egin da. Adinekoei bakarrik eragingo balie, gaitzerdi. Sektore eta adin-tarte guztietara zabaldu da. Hori gutxi baltz, XXI. mendeko izurriteak muga guztiak gainditu ditu. Edonon topa ditzakegu gaitzaren nahikoa adibide.

2018ko urria, Euskal Herria.

Etxeko balkoitik, adinez nagusi den gizon bat ikusten dut maiz zabor ontzietan arakatzen. Makulu gisa erabiltzen duen makiltxoarekin aritzen da espaloiko edukiontzietan ikusmiran.

Ez gaude Grezian. Hemen, otzan samar dago giroa. Hainbat eta hainbat lagun (zahar, heldu eta gazte) aktibo samar ikusten ditut hala ere: hizkuntzaren alde, ingurugiroaren defentsan, feminismoan... Beste arlo batzuetan ordea, fokuz kanpo, desafinatuta bezala. Desartikulatu samar.

Prekarietate izurritearen aurrean, pentsiodunak dira duintasunez bizitzeko aldarria ozen defendatzen ari direnak. Pentsio egokien aldeko borrokan, eros-ahalmena gal ez dezaten. Duin bizi daitezten.

Hitzetatik ekintzetara pasa dira gainera. Troiako pasabidea denontzat da arriskutsu. Berau konpontzea herritar orontzat litzateke onuragarri. Baina hemen eta orain, adinekoak dira errepidea mozteko indarra batu duten bakarrak. Etorkizun hobe baten aldeko guda-zelaian, pentsiodunak ageri dira abangoardian.

Maialen Unanue

Garazi Lizaso Manterola

Aritz Gorriti

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Luken Arkarazo

Langabezia beherantz eta kontratazioa gorantz

Usurbilek 228 langabetu zituen irailean Estatuko Enplegu Zerbitzuak, kaleratu berri dituen azken datuen arabera. Abuztuan baino lanik gabeko 8 lagun gutxiago. Usurbilen bezala, Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere beherantz egin

du langabetu kopuruak. Baina bada datu bitxi bat; Gipuzkoa osoan baino gehiago murriztu da eskualdean. 77 langabetu gutxiago zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak Buruntzaldean (guztira 3.169), 41 gutxiago Gipuzkoa osoan (guztira

32.148).

Langabeziak behera egin eta kontratazioak gorantz egin du irailean. Abuztuan 320 kontratu erregistratu ziren, irailean 387. Ohi bezala, ia denak, 357 aldi baterako eta 279 zerbitzuen sektorean. Nabaria beste

behin, gizon eta emakumeen artean dagoen aldea. 387 kontratuetatik 231 gizonenak ziren, 156 emakumeenak. Aldiz, gizonenak baino (100) emakumeenak langabetu gehiago (128) zenbatu zituzten irailean.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatziak gehenez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: urriak 26. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 22.

Errigoraren udazkeneko kanpainak bost urte bete ditu

Bueltan dator bosgarren urtez, Nafarroa hegoaldeko tokiko ekoizpena eta euskalgintza sustatzea helburu duen Errigora ekimenari lotutako udazken parteko "Nafarroa hegoaldeko uzta euskarari puzka" elkartasun ekimena. Bertako produktu goxoez jositako bi kutxa izango dituzue aukeran eskuragarri.

Erositako kutxetatik jasotako laguntzaren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintza suspertzera bideratuko dute. Aipatzekoa, ekimen honek ere ate joka dugun Euskaraldiarekin bat egin duela. Euskararen erabilera suspertzera helburu



Batutako diruaren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintza suspertzera bideratuko dute.

duen ekimenean parte hartzeraren egoitzan.

Udazkeneko kanpaina

■ Eskaerak: urriaren 25etik azaroaren 14ra NOAUA! K.E.-

Bi produktu-kutxa aukeran:

Kutxa beltza:

■ Prezioa: 50 euro.

■ Produktuak: oliba-olio bir-

jina estra, ozpin ekologikoa, mahats-zuku ekologikoa, orburu bihotzak, piper txorize-ro mamia, potxak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, arbendolak, borraja ekologikoa, pikillo piper osoak, melokotoia almibarretan, tomate frijitua.

Kutxa zuria:

■ Prezioa: 50 euro.

■ Produktuak: pikillo saltsa, pasta ekologikoa, teilak, pikillo piper osoak, ardo beltz ekologikoa, zainzuri zuriak, orburu bihotzak, arroza, zainzuri-krema, piperrada, ozpin ekologikoa, ardo eta kanela pastak, txokolatzeko cookieak.

Ika-mika

Pentsio duinen aldeko konpromisoa

Pentsioen sistema publikoaren zilegitasunak eskatzen du ziurtatzea bizimodu duin bat adinekoentzat, baina, era berean, eskatzen du baita ere berme bat izatea belaunaldi gazteentzat; jakin behar dute etorkizunean, zahartzen direnean, jasoko dituzten pentsioak izango direla gaur egun finantzatzera laguntzen ari diren pentsioen parekoak.

Galdegiten dugu pentsioen eros-ahalmenari eutsi behar zaiola, eta ezin direla pentsioak hauteskunde tresnatzat erabili. Horregatik, salatu nahi dugu Konstituzioaren 50. artikulua ez direla betetzen ari: "Botere publikoek, pentsio egoki eta aldiro eguneratuen bitartez, bermatu behar diete herritarrei zahartzaroan burujabetasun ekonomikoa izango dutela".

Pentsioen sistema publikoak

eskatzen du epe ertain eta luzerako ikuspegi bat lantzea, eta neurri egonkorak ematea, urtez urteko aurrekontuen negoziaketaren gorabehereri lotu gabe. PPreten eta EAJren arteko akordioak ez du ziurtatzen pentsioek berreskuratuko dutenik 2013az geroztik galdutako eros-ahalmena.

Gezurretan ari dira esaten digutenean ez dagoela dirurik erronka demografikoei eta bizi-itxaropen luzeagoari aurre egiteko. Krisia hasi aurretik baino aberastasun handiagoa daukagu gaur egun, baina okerrago banatuta. Gainera, Espainiako estatuak Barne Produktu Gordinaren 4 puntu gutxiago erabiltzen du pentsioetan, gure inguruko Grezia, Frantzia, Italia edo Portugalen aldean. Horrek esan nahi du 46.000 milioi euro gutxiago. Beraz, ez dago dirua eskas, baizik borondate politikoa dago eskas.

Horregatik esaten dugu: pentsiorik ez pobreziazen atalasetik behera. Pentsiorik ez Lanbide arteko Gutxieneko Lansaritik behera; horrek esan nahi du, Europako Gutun Sozialaren arabera, Euskadin 1.080 euro, hori da lortu beharreko helburua. Euskadin pentsioen %42,5 pobreziazen atalasetik behera daude, bereziki emakumeen esparruan.

Emakumeek bizitza laborean bizi duten desberdintasunak ez du esan nahi, bakarrik, lansari okerragoak eta prekaritate handiagoa dutela. Horrez gain, genero arrakala agerian gelditzen da emakumeek pentsio apalagoak jasotzen dituztenean. Euskadin, emakumeek batzate beste jasotzen duten pentsioa %41 apalagoa da, gizonezkoen aldean; beste horrenbeste esan daiteke erretiro pentsioez. Sumindu eta konprometitu be-

har dugu! Erronka handi bat dugu gure aurrean: pentsioen sistema publikoa bermatu eta hobetzea, ezinbesteko tresna baita gizarte kohesioa finkatzeko eta indartzeko, hau da, bizitza duin baten nahitaezko baldintzak ziurtatzeko pentsiodun eta langile guztiei.

Beraz, proposatzen dugu:

- Pentsio publikoak babestu behar dira.
- Pentsiorik ez pobreziazen atalasetik behera.
- Euskadin, gutxieneko pentsioa 1.080 euro.
- Bideragarritasun faktorea indargabetu.
- Pentsio pobreak sortzen dituen genero arrakala eta enplegu prekariorik ez.

Donostian, 2018ko urriaren 6an

Gipuzkoako Helduen Elkartearen Plataforma.

Euskaraldira begirako izen-ematea zabalik da eta formazio saioak martxan

Euskararen erabilera sustatzera dator Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Herritarrak izen ematen hasiak dira. Hurrengo asteotan izen ematea bideratu edota izena emandakoek formazio saioak jasoko dituzte UEMA-ren eskutik Potxoenean.

Datozen deialdiak

■ Urriak 20, larunbata: 12:00-14:00 Euskaraldian izen emateko mahaia Mundualdian.

■ Urriak 26, ostirala: 19:00-20:30 Euskaraldian izen emateko mahaia Mikel Laboa plaza inguruan.

■ Urriak 24/ Urriak 30: 18:00 Ahobizi nahiz Belarriprest guztientzako prestakuntza saioak Potxoenean.

Izen ematea:

NOAUA! K.E.-ren egoitzan, Potxoenean ditugun eskuorrietan. Bestela emailaz edo Euskaraldiak martxan jarritako web orrialdean.

Informazio gehiago:

usurbil@euskaraldia.eus
usurbil.euskaraldia.eus
Facebook: Euskaraldia Usurbil
Twitter: @EuskaraldiaUsur
Youtube: Euskaraldia Usurbil



LAB sindikatua, Euskaraldiarekin bat. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarteko kanpainarekin bat egitera animatu nahi dituzte herritarrak.

LARUNBATEAN FRONTOIAN

Euskaraldian izena emateko aukera izango duzue larunbatean, Mundualdia festan. Mahai bat ipiniko dute frontoian

Euskara eta aisialdiko diru-laguntzak

Ekainaren 25etik uztailaren 6ra bitarte, euskara nahiz aisialdiko udal diru-laguntza deialdie-

tara eskabideak aurkeztu zenuzutenok adi. Usurbilgo Udalak urriaren 11n eman zituen argitarara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez, deialdiari lotutako behin betiko ebazpenak. Irailaren 25ean eginiko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen behin betiko, hasieraz onartu eta inork alegaziorik aurkeztu ez ostean.

Aurreko ikasturtean zehar aisialdiko begirale nahiz zuzendari izateko ikastaroren bat egin zutenek ere, diru-laguntza

eskatzeko aukera zuten. Hauek dira bateko zein besteko deialdien ebazpenak.

■ Euskara

Deialdira aurkeztutako eskaera kopurua: 43.

Diru-laguntzetan banatuko den kopurua: 17.191,46 euro.

■ Aisialdia

Deialdira aurkeztutako eskaera kopurua: 15.

Diru-laguntzetan banatuko den kopurua: 2.500 euro.

Martxan da berriz Sexu Aholkularitza Gunea

Urriaren 16az geroztik atek zabalik ditu berriz Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak. Hilabetero, lehen, hirugarren eta bosgarren astearte arratsaldeetan eskainiko da doako udal zerbitzua, 17:00-19:00 artean, Gizarte Zerbitzuek

Kale Nagusia 43, behean duten egoitza berean. Bertaratu nahi duenak aurrez eska dezala hitzordua, 697 919 516 telefono zenbakira deituta edo whatsapp mezu bat bidaliz. Bestela, idatzi email bat sexuaholku@usurbil.eus

helbidera. Informazioa, formazioa eta bikote edo bakar-kako aholkularitza sexologikoa eskaintzen da bertan.

Adin guztiei zabalik

Hainbat gai jorratzeko aukera ematen du; sexu-identitatea,

desiraren norabidea, haziera erotikoa, jolas eta jostailu erotikoa, plazera, zeloak, asperdura, fantasiak... Adin guztietako pertsonen zuzendua dago Sexu Aholkularitza Gunea. Gizarte Zerbitzuek duten egoitzan topatuko duzue.

Kartzela eta gizarteratze zentroa eraikiko dituzte Zubietan

Zubietan mintzagai izan zuten urriaren 10ean Madrilgo Diputatuen Kongresuan, espetxearen harira. Azkenean bai, Zubietan gainean tamaina txiki-ertaineko espetxea eta gizarteratze zentroa eraikiko dituela iragarri zuen Espainiako Gobernuak barne ministro Fernando Grande-Marlaskak.

Lehendik hainbatetan egin izan duten moduan, EAJ-ren diputatu taldeak eraman zuen gaia Kongresura duela astebeite, Espainiako Gobernuari egin ohi zaion kontrol saiora hain zuzen. Mikel Legarda diputatu jeltzaleak Martuteneko espetxea noiz itxiko duten galdetu zion barne ministroari.

“2005ean Barne Ministerioak eta Donostiako Udalak Martuteneko espetxea ixtea adostu zutenetik, 13 urte igaro dira eta nahiko interpelazio, galdera eta mozio aurkeztu du talde parlamentario honek. Kartzelak oraindik han segitzen du, Monterrosoren dinosauro ezagun haren antzera. Noiz itxiko duzue kartzela?”

Baietz erantzun zion Grande-Marlaskak EAJ-ren galderari. Martuteneko espetxea itxiko dutela, Zubietakoa eraikitakoan. Azkenean Zubietan 200-300 presoentzako kartzela eta gizarteratze zentro bat eraikiko dutela iragarri zuen. Espainiako Gobernuak itxi, lekuz aldatu edo berregituratu beharreko espetxeen gaineko plan bat lantzen ari dela adierazi zuen barne ministroak. Mercedes Gallizo buru duen departamentuak aipatu egitasmo hau laster ezagutaraziko duela. “Aurreratu dezaket, Martuteneko espetxearen itxiera berrikuntza nagusietakoa izango dela”, iragarri zuen. Eta abuztuan bestelakorik zabaldu zen



EAJ-ren galderari erantzunez, Grande-Marlaskak Martuteneko espetxea itxiko dutela azaldu zuen, “Zubietakoa eraikitakoan”.

MADRILGO KONGRESUAN

“Grande-Marlaskak Martuteneko espetxea itxi eta Zubietakoa eraikitzeko konpromisoa berehalakoa izango dela azaldu zuen, baina data zehatzik ezin duela eman adieraziz”

arren, azkenean, gizarteratze zentrorarekin batera, espetxe berria eraikiko dela Zubietan “ahal bezain laster”.

Ez aurrez iragarria zegoen makrokartzela, tamaina erdi edota ertainekoa baizik. “Espetxe berriak prebentibo egon edota zigorra betetzen ari diren presoentzako 200-300 plaza artean izango ditu. Zentro txiki-ertaina izango da, dauden beharrekin bat datorrena”. Hirugarren graduan direnentzako, neurri alternatiboetan betearazpenerako gizarteratze zentroa ere eraikiko dela ziurtatu zuen. Data zehatzik aurreikusitako ez duten arren.

“Ez duzue zehaztasunik ematen”

Erantzun honen aurrean mesfidati agertu zen EAJ. Espainiako Gobernuak Zubietarako dituen asmoen berri ez zaiola hain-

beste axola nahiko argi utzi zion Legardak Grande-Marlaskari. “Galdetu dizut Martutenekoa noiz itxiko duzuen, ez hainbeste noiz eraikiko duzuen espetxe berria”, adierazi zion barne ministroari.

Galdera egin aurretik bezala geratu zela adierazi zion Legardak. “Berriz ere ez dizkiguzue zalantzak argitzen, ez duzue zehaztasunik ematen eta Martutenekoen itxieraren data zehatzaren berri izan gabe jarraitzen dugu. Denbora asko daramagu Martuteneko espetxea laster itxiko dela entzunez, baina une hori ez da sekula heltzen”.

Martuteneko espetxearen egungo egoera prekarioa eta atzean duen historia iluna gogorarazi zion EAJ-k Espainiako Gobernuari. “Ministro jauna, Martuteneko problematika ezagutzen duzu. Espainiako zaharretarikoa da. Francok inauguratu zuen eta bertan gogor erreprimitu zuten euskal nazionalismoa”.

Horrekin batera, zioenez, “gutxien berritu den kartzelarikoa da. Intzidentzia urbanistikoa nabarmena du kokagunean. Ministro jauna, zuek urteak daramatzazue gobernuan, Martutenekoen itxiera atzerazina den beharra dela

onartzen”. 2005. urtean jada, kartzela hau desagertu behar diren artean kokatua zuen Espainiako Gobernuak, “espetxe zigorren gizarteratze helburuak zalantzan jartzeagatik”.

Eskumen eskaera

Urteotan labur, gai honi buruz Espainiako Gobernuak esandakoak gogorarazi zituen Legardak. Hasieran makrokartzela eraikiko zela Zubietan, gero espetxerik ez, gizarteratze zentro bat, orain tamaina erdi-ertaineko espetxea eta gizarteratze zentroa. “Denetarik esan diguzue eta ez da ezer bete sekula. Duela 13 urte baino askoz okerrago gaude”.

Testuinguru honetan eskaera argia luzatu zion Legardak Espainiako Gobernuari. “Ministro jauna, zerbait egin Martutenekin edota askoz hobeto, transferentziak Euskadira eskuz aldatu Gernikako Estatuak finkatua duen moduan”.

“Larrialdi-egoeran daude Zubietan eta Usurbil ingurua”

Militarren kuartelaz gain, Zubietan kokatzea aurreikusitak dauden gainerako proiektuak ere ahotan hartu zituzten irailaren 25eko udalbatzan. Onarturiko mozioak proiektu guztiak kezka agertzen zuen. “Larrialdi-egoeran dago Zubietan, eta Usurbil ingurua ere. Izan ere, Zubietan ez ezik, Usurbilen ere izango dute eraginik, proiektu batak zein besteak: gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu, inongo inposiziorik gabe, aire garbia arnastu nahi dugu eta ez dugu militarrik nahi gure inguruan. Ez Donostian, ez Zubietan, ez inon!”.

Intxaurrendieta eta Errazkinen aldeko epaiak hilaren 27ko manifestaziorako deia indartu du

Babes eta zorion mezu ugari zabaldu dituzte norbanako nahiz eragileek egunotan, sare sozialen bidez, 2013an eraikitzea aurreikusten zen erraustegia geratzeagatik apirilean epaitu zituzten orduko GHK-ko lehendakari Ainhoa Intxaurrendietari eta ingurumeneko foru diputatu Iñaki Errazkini Espainiako Kontu Auzitegiak arrazoia eman ostean. Eta honenbestez, aipatu epaitegiak erraustegia geratzeagatik inolako deliturik egin ez zutela aitortu ostean.

“Oraindik garaiz gaude”

Eragile guztiok nabarmendu dute, albiste honen ostean, erraustegia geratzeko urriaren 27rako Donostian deitua duten manifestazioaren garrantzia. “Urriaren 27an ospatuko dugu “Erraustegia gelditu!” manifestazioarekin! Gora Ainhoa eta



Erraustegia geratzeko manifestazio bateratua deitu dute. Urriaren 27an, arratsaldeko 17:00etan abiatuko dira Amarako Mendeurren plazatik.

Iñaki! Denok kalera!! Ez erre etorkizuna!!”, adierazi dute Gipuzkoa Zutik mugimendutik.

Errausleen gainbehera hasi dela adierazita, “oraindik garaiz gaude” gogorarazi du Errausketaren Aurkako Mugimenduak, eta urriaren 27an

Donostiara joatera deitu du. ELA sindikatutik ere diotenez, “orain, erraustegi berria gelditzeko urratsa eman behar da. Horretarako, ELAk urriaren 27ko Donostiako manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen du”.

Baita Eguzkik ere. Epai honek ekarritako “arnas berri hori urriaren 27an Donostian egingo den manifestazioan islatzea lortu behar dugu”.

Manifestazioa, astebete barru

Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia geratzeko manifestazio handi eta bateratua iragarria dute eragile anitzek: Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, GuraSOS, Gipuzkoa Zutik, GEIS/OEIT, Eguzki, Greenpeace, ERNAI, ELA, LAB, CCOO, EHNE, ESK, STEILAS, HIRU eta “No + Precariedad”.

Manifestazioa, astebete barru

Urriaren 27an larunbata, Donostiako Amarako Mendeurren plazatik (Euskotreneko Amarako geltokitik Urumea ibai aldera dagoen plaza) abiatuko da 17:00etan, “Erraustegia gelditu!” lelopean.

Etorkizunerako horma koloretsu eta bizia

Egunotan Sutegin izan da ikusgai urriaren 7an, GuraSOS-ek deituta, etorkizun bizi eta koloretsua irudikatzen frontoian antolatutako ekimenaren baitan, haurrek eginiko sortze lanak; marrazki eta idatziak. Horma irudi ederra osatu zuten kultur etxeo erakusleihoan. Gogoan izan, sortze lan guztietatik batzuk

hautatu eta latoizko kutxak apainduko dituzte. Kutxa hauek urriaren 27an eragile anitzek erraustegia geratzeko Donostian deitu duten manifestazioan jarriko dituzte salgai. Baita geroago ere salmenta puntu ezberdinetan.

Informazio gehiago:
gurasos.org



Sortze lan hauetako batzuk latoizko kutxak apainduko dituzte.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
urdaintzi@euskalnet.net 649 43 54 75
IT-ak egiten dira 943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Tadamun taldea osatu da eta ostiralean aurkeztuko dute Sutegin

L arunbateko Mundualdia egunaren bezperan Tadamun aurkeztuko dute jendaurrean ostiralean, urriak 19, 19:00etan Sutegin. Denbora tarte batean lantzen aritu diren proiektua gizarteratuko dute. “Elkartasuna, hori esan nahi du Tadamunek eta hori bultzatzea eta lantzea da bere nahia. Badira hilabete batzuk gai honen inguruan gaur Tadamun osatzen dugunok hausnarketa bat egin genuela eta herrian internazionalismoari begira hutsunea zegoela iruditu zitzaigun. Gogoz eta ilusioz ekin genion proiektu honi eta plazaratzeko momentua iritsi dela uste dugu”, adierazi diote Tadamun-eko kideek NOAA!-ri.

Taldeak bideratu asmo duen jardunaren ardatz nagusiak aurreratu dizkiote aldizkari honi. “Alde batetik herrien errealitate ezberdinak ezagutzuz gure buruak elikatu eta beraiekiko elkarlana sustatu. Horretarako hitzaldi ezberdinak ekarriko ditugu herrira, solasaldi ezberdinak, mahai inguru ezberdinak. Beste alde batetik, Usurbilen munduko beste herrietatik bizitzera etorri diren pertsonekin harremanak egin, sendotu eta guztion elkargune izan nahi du Tadamunek. Sortu daitezkeen nahi eta beharrei erantzuna eman eta horrela Usurbil inklusibo



“Sortu daitezkeen nahi eta beharrei erantzuna eman eta horrela Usurbil inklusibo eta integratzailea sortzen ere gure indarrak jarri nahi ditugu”, Tadamun elkarteko kideek aditzera eman digutenez. Iazko Mundualdikoa da argazkia.

ELKARTASUN EKIMENA

“Usurbilen munduko beste herrietatik bizitzera etorri diren pertsonekin harremanak egin, sendotu eta guztion elkargune izan nahi du Tadamunek”

eta integratzailea sortzen ere gure indarrak jarri nahi ditugu. Herrien eta herrietan bizi diren pertsonak saretzen dutelako

etorkizuna eta guk pertsona aske eta parekidez osatutako mundua nahi dugulako”.

Ostiral honetan, agerraldia Sutegin

Mundualdia jaialdiaren bezpera hautatu dute Tadamun aurkezteko, “bertan txertatuz bertan egiten den lan zoragarriari gure aletxoak jarri nahian”. Aipatu moduan, ostiral honetan (urriak 19) egingo dute agerraldia 19:00etan Sutegin. Eta segidan, Xabier Yurramendi urnietarra gonbidatu dute kultur etxera. “Txiapasen giza-eskubideen begirale egondakoa

da eta bere esperientzia zein bertako egoera azalduko dizkigu, brigada horietan egiten den lana esplikatzuz eta suertatzen diren galdera guztiei erantzuna emanez. Guztiok Xabiren esperientziak ezagutu, partekatu eta gure artean solasaldia izateko bertan ikusiko garelakoan, animatu!”.

Txiapasen inguruko hitzaldia

- Eguna: Urriak 19 ostirala.
- Ordua: 19:00etan.
- Hizlaria: Xabier Yurramendi.
- Tokia: Sutegin.

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Patri
Patri Jateetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

“Aniztasunak aberastasuna dakar”

LARUNBAT HONETAN OSPATUKO DA MUNDUALDIA FESTA

Kultura-aniztasuna, elkar errespetua eta elkar aitortza. Balio horiek sustatzeko jaio zen Mundualdia Festa. Laugarren edizioan, helburu berberak bultzatzeko gogoz dira antolaketa batzordekoak. “Aniztasunak aberastasuna baitakar gure herrira; ez, ordea, mehatxua”.

Munduko koloreak eta zapo-reak nagusituko dira larunbat honetan. Ghana, Mauritania, Italia, Kuba, Nigeria, Euskal Herria, Sahara, Honduras, Errumania, Pakistan edota Nikaraguako herritarrek beren adierazgarri kulturalak erakutsiko dituzte frontoian. “Herri anitza garelako aldarrikatetik, mundu bat garelako erakustera. Biltzera”. Josune Estella udal zinegotziaren esanetan, “Mundualdiak guztion aterpe izan nahi du”.

Bi norabideko elkar-ekintza

Gurera etorri diren herritarrak, bizitza berri bati ekin nahi dioten gizabanakoak direla dio Estellak: “Pertsona horiek iragana dute. Kultura bat, hizkuntza bat, eta erlijio bat. Eta ez dute zertan abandonatu”. Mundualdiak plaza egokia eskaintzen die, “gainerako usurbildarrok ezagutu ditza-gun. Haien hizkuntza, kultura, jakiak, arropak, dantzak, ohiturak... gurekin parteka ditza-ten. Arrotza eta ezezaguna zai-



Mundualdia 2018 egitaraua aurkeztu zuten aurreko astean Potxoenean. “Elkarrengandik asko dugu ikasteko. Partekatze. Baina berdinetik berdiner”.

JOSUNE ESTELLA

“Kolore bakarreko baino, kolore anitzeko herria eraiki nahi dugu.

Ezer inposatu gabe. Modu horretan saihestuko baititugu gatazkak eta estereotipo faltsuak”

guna, ezagun bihur dezagun. Etxeko. Elkarrengandik asko dugu ikasteko. Partekatze. Baina, berdinetik berdiner”. Josune Estellaren esanetan, denen ahalegina beharrezkoa da, “elkar aitortzeko. Haiek gu,

eta guk haiek. Bi norabideko elkar-ekintzan. Gurea euren ere badela sentiaraztea; euren albo batera utzi gabe, noski”.

Mundualdia 2018

Urriak 17 asteazkena

“Gaurko migrazio mugimenduak xenofobia eta elkartasuna” hitzaldia. SOS Arrazakeria eta Amher elkarte. 19:00ean Sutegin.

Urriak 20 larunbata, Mundualdia Festa

■ 12:00 Alkatearen agurra.
■ 13:00 Jakien dastaketa.

■ 16:00 Gaztelekuaren ekimena: Usurbilgo haur eta gazteekin kulturarteko jardura.

■ 19:30 Olana Liss taldearen kontzertua, frontoian.

Urriak 21 igandea, dokumentala Sutegin

■ 18:00 “La mochila invisible” dokumentala Sutegin, Bidez Bide elkartearen eskutik.

Urriaren 22ra arte erakusketa zabalik

■ “Munduko hizkuntza gutxiak etxean. Zer dugu elkarrengandik ikasteko?”. Sutegin, Garabideren eskutik.

Ginkana bat, hausnarketa sustatzeko gazteen artean

Nerabe eta haurrentzako ekitaldirik ere izango da urriaren 20an. “Beraiek ere egun honetan tokitxo bat izateko”, Gaztelekuko Saioa Aginako hezitzaileak azaldu zuenez.

“Harremanetan jarriko

dugu arreta eta gai hori jolasen bitartez landuko dugu”. Gaztelekuko kideek ginkana bat prestatu dute. “Bost gune izango ditu eta herrian zehar sakabanatuta egongo dira. Gune guztiek kulturar-

tekotasunarekin lotura izango dute”.

Horrelako prozesuek guran sortu ditzaketan emozioetan erreparatu nahi dutenez, modu honetan izendatu dituzte bost guneak: Beldurra,

Kuriositatea, Gaitzespena, Jabekuntza eta Migrazioa. “Toki bakoitzean, gai horri lotutako jolas txiki bat egingo dute”. Modu ludikoan, hausnartzeko aukerak eskaini nahi dizkiete gazteei.

Usurbilgo biztanleen %83 Euskal Herrian jaioa da

Mundualdiaren aurkezpen ekitaldian Aztikerrek egin duen ikerketaren berri eman zuten. Jatorriaren ikuspegitik, anitzza da Usurbilgo errealitatea. Maria Salsamendi Gizarte Politikak eta Aniztasuna Departamenduko arduradunak datu esanguratsuenak azpimarratu zituen:

■ Usurbildar guztien (6.162) % 43a udalerrian bertan jaiotakoa da.

■ Usurbilgo herritarren hamarretik zortzi baino gehiago Euskal Herriko udalerriren batean jaiotakoa da (%83,1). “Beraz, datu honek erakusten digu Euskal Herritik kanpo jaiotako usurbildarren ehuneko baxua dela”, Gizarte Politikak eta Aniztasuna Departamenduko udal teknikariak aditzera eman zuenez.

Europatik, 769 herritar

■ Euskal Herritik kanpo jaiotako usurbildarren artean, kontinentea, jatorri nagusia Europako estatu-nazio ezberdinetatik etorritakoena da: guztira 769 herritar dira eta Usurbilgo biztanlegoaren %12,6 osatzen dute.

Amerikatik, 198 herritar

Amerikatik etorritakoak 198 dira eta herritarren %3,1 osatzen dute (Ertamerikatik 72, Antilatik 19 eta Hego Amerikatik 107).

Jatorri afrikarrekoak, 56

%0,9 (gehienak Sahara hegoaldeko eta Marokotik iritsitakoak dira).

Asiatik, 17 herritar.

Amerikatik emakumeak eta Afrikatik gizonak, nagusiki

Jaiolekua eta sexua alderatuz gero, multzo gehienak orekatuak dira, hau da, gutxi gorabehera emakumezko adina gi-



‘Usurbilgo jatorri aniztasuna zenbakitan 2018’ azterketaren berri eman zuten Mundualdiaren aurkezpen ekitaldian.

AZTIKERREN IKERKETA

“Krisi ekonomikoa dela eta, migratzaileen etorrerak geldialdia izan du.

Azken urteetan lehen aldiz, migratzaileek udalerrian duten pisua jaitsi egin da”

zonezko bizi dira Usurbilen. Ez da horrela gertatzen beste kontinenteetatik etorritako usurbildarren artean, eta desoreka hori lanpostuaren eraginez gertatzen da. Esaterako, Hego eta

Ertamerikatik datorren gehien-goia emakumea da (% 61,1), eskaera handia dagoelako hemen zaintza eta zerbitzuekin loturiko lanpostuak betetzeko. Aldiz, Afrika edo Asiatik etortzen direnak, batez ere, gizonezkoak dira, % 64,3 eta % 58,8, hurrenez hurren.

Azkenaldian etorri diren gehienak gazteak dira

Bestetik, azken urteetan iritsitako migratzaile berrien gehien-goia gaztea da eta lan egiteko adinean etorritakoa. Migratzaile berriek 30 eta 40 urte bitarte dituzte, eta udale-

rriaren gaztetzea eragiten dute.

Migratzaileen etorreraren geldialdi bat eman da

Krisi ekonomikoa dela eta, migratzaileen etorrerak geldialdia izan du, eta azken urteetan lehen aldiz, migratzaileek udalerrian duten pisua jaitsi egin da. Jaitsiera hori ez da Usurbilen bakarrik gertatu, Gipuzkoan ere antzera gertatu da. Hala, Espainian jaiotakoek herritarren % 10,8 osatzen dute, eta munduko beste estatuetatik etorritako herritarrek % 6,1 osatzen dute.

Bi ‘olatu’ nagusi eman dira

Migranteen etorrera ez da fenomeno berria. “Usurbilek XX. mendean bi migrazio olatu nagusi jaso ditu, Espainiako Estatutik etorritakoena (1950 eta 1980 artean batik bat) eta munduko beste estatu eta kontinenteetatik etorritakoena (90eko hamarkadatik aurrera)”. Udal iturrien esanetan, “bi migrazio olatu horiek eragin nabarmena dute gaur egungo usurbildarren jaiolekuen arabera mapan”.

Saul Narvaez, antolaketa batzordeko partaidea: “Mundualdian herriko anfitrioiak sentitzen gara”

Saul Narvaezek Mundualdiaren antolaketan hartzen du parte. “Egun handia da. Berzia”. Udalaren zein gizarte zerbitzuen ekimena pozgarria dela dio, “inmigranteen eta usurbildarren arteko harremana sustatzeko aukera eskaintzen digulako”.

Askorentzat, jatorri ezberdineko jakien festa izaten da Mundualdia. Saul Narvaezen esanetan, urtean zehar kezka nagusi bat izan ohi dute: “ea zer nolako janaria aurkeztuko dugun. Urte osoa horretan pentsatzen pasatzen dugu.

Aukera zabala baita. Euskal Herriak gastronomia goxoenetako bat du eta guk, egun horretan prestatzen ditugun jakiekin, eskaintza aberasten dugu”.

Janaria aitzakia baino ez da. Mundualdiaren helburua askoz sakonagoa baita. “Egun horretan herriko anfitrioiak sentitzen gara”, Narvaezen hitzak dira hauek. “Herritarrak plazan izango direnez, gure bizilagunekin harremanetan jartzen saiatuko gara”. Laugarren urtez jarraian, “gutako bakoitzak bere herrialdea ordezkatzeko du, ohore eta ilusio



Saul Narvaezek orain arte egin diren lau edizioetan hartu du parte.

handiarekin”. Urtero aurreikuspen guztiak ganditu izan dira eta oraingoan ere hala izatea espero dute: “ea aurtengoa hobea den”.





Zumba maratoki solidarioa urriaren 27an

Zuetako askok ezagutuko duzue ondoko argazkiko herritarra; Betisa Carrasco. Usurbilen bat baino gehiago jarri du azken urteotan, dantza batean Oiardo Kiroldegian eskaintzen dituen zumba klaseekin. Urriaren 27rako saio berezia antolatu du, maratoki solidarioa denontzat.

Hitzordu honi begira salgai jarriko dituen sarreretatik bildutako diruarekin alaba lagundu nahi du. Joan den udaberrian alaba txikiari diabetesa detektatu zioten. Ordutik, “gau oso bat lo egin gabe daramat”. Goizaldean iratzargailua hirtan jartzen duela aipatu digu. Kontua da, diabetesarekin, gorabehera handiak izaten ditu azukrearekin. “Igoerek ez digute hainbeste kezkatzen, ez baitute beharaldiek bezainbesteko eragina”, adierazi dio NOAUA!ri Betisak. Igoerak dituztenean pixa egiteko gogoia edo egarri handia izaten dute. Beharaldiak dituztenean, “zorabioak eta hotzikarak”.

Alabari diabetesa detektatu ziotenean sarean arakutzen hasi zen Betisa. Zaragozan mediku alerta lanak egiten dituzten zakurrak zituen elkarte



Joan den udaberrian, Betisa Carrascoren alaba txikiari diabetesa detektatu zioten.

URRIAREN 27AN, OIARDON

“Salgai jarriko diren sarreretatik bildutako dirua Betisaren alaba laguntzeko izango da”

baten berri jaso zuen. “Haur diabetikoen azukrearen bat-bateko gorabeherak detektatzen dituzte usaimenaren bidez”, azaldu dio NOAUA!ri Carrascok.

“Lasaitasuna izango da alabarentzat eta guretzat”

Egun, hainbestetan behatzetan ziztutzen aritu behar izan beharrean, sensore bat jarri diote besoan, makinarekin pasatzeko. “Azukrearen baremoa ematen dio”. Umeak ume diren heinean, askotan besoan duen sentsorea makinan pasatzea ahaztu eta “konturatzen denerako askotan, hotzikarekin izaten da beharrekada izan duelako”.

Zaintzaile lanak egiten di-

tuen zakurrak “jakinaraziko lioke, lasaitasuna eman”. Zakur hauetako bat etxera ekarri asmo dute, aipatu Zaragozako elkartearekin eta zenbait familiekin hitz egin eta oso pozik direla jakin ostean. “Lasaitasuna izango da alabarentzat eta guretzat”, adierazi dio NOAUA!-ri Betisak. Haurrari 24 orduetan lagunduko lioke eta gurasoei bereziki gau partean. Urte amaierarako etxean izatea espero dute.

Herriko eragile ezberdinen laguntza jaso du

Bereziki zereginotarako hezitako zakur honek eragingo dizkien gastu nabariei aurre egiten laguntzeko antolatu du Betisak, urriaren 27ko bi orduko zumba saio solidarioa.

“Ni bezala, instruktoreak direnak etorriko dira dantzara”. Herriko eragile ezberdinen laguntza jaso du baita. Jardunaldian zehar egingo duten hamar minutuko atsedendaldian, Orbeldi D.T.-ko kideek erakustalditxo txiki

bat egingo dute dantza pare batekin. Usurbilgo DYA-k ere lagundu, Hurbilago Elkartek edari eta frutarekin. Udalak ere bai, egun horretan aurreikusiak zeuden eskubaloi partidak lekuz aldatzen. “Laguntzeko deitu nienean segituan esan zidaten baietz. Babes handia jasotzen ari naiz”, eta eskerrak helarazi nahi dizkie lerrootatik gurtiei.

Parte hartu nahi duzuen guztiok sarrera eskuratu behar duzue. Honatx zumba maratoki solidarioa eramane beharre-

koak. “mallak, kirola egiteko oinetakoak eta dantza egiteko gogoia!”. Dantzara nahiz zumba festa ikustera gerturatu nahi duen guztiarentzat Oiardo Kiroldegiko atea zabalik izango dira hilaren 27an. Aukera ederra, zumba ezagutzeko. “Kirol jarduera bat da, dantzatzu dibertitzeko. Kirola eta dantza uztartzen ditu. Klaseak ematen ditu baina niretzat ere terapeutikoa da”, adierazi dio NOAUA!ri Betisak.

Telebista bidez ezagutu zuen zumba. Etxekoek urtebetetze-

tarako oparitu zioten ikastaro bat Madrilan. “Joan eta gustatu. 6 urte daramatzat eta zoriontsu. Zumba dantzatzu jubilatzea espero dut”, adierazi digu Betisak.

Zumba maratoki solidarioa

■ Eguna: urriak 27, larunbata.

■ Orduetgia: 17:00-19:00.

■ Tokia: Oiardo Kiroldegia.

■ Sarrerak: aurrez salgai Txirristran edota Oiardo Kiroldegian. Egunean bertan Oiardo Kiroldegian.

Udarregi Ikastola, Erronkan

Urtero legez, urriaren 7an Urretxu-Zumarragan ospatu zen Kilometroak jaialdiko DBH-ko ikasleei zuzenduriko Erronkan parte hartu zuen Udarregi Ikastolak, beste 17 ikastolekin batera. Unai Lataillade Aizpurua kapitaina buru zuen taldea, Kerman Rekondo Atxega, Elur Zaldia Elortza, Udane Makazaga Estella, Lorea Aranzastroki Makazaga, Nahia Franko Hernani, Karmele Arrillaga Sola, Garazi Santos Martin, Izaro Goenaga Oiarzabal, Izadi Urdanpilleta Matxain, Maialen Azkue Ortubia, Maialen Alustiza Pikabea, Irati Alduntzin Alegria, Eneka Muñoz Lasa, Uxue Orbegozo Sarasua, Ane Girdales Gonzalez eta Naroa Guembe Amas ikasleek osatu zuten.

Erronkaren harira mugikorren



Kilometroak jaialdiko Erronkan hartu zuten parte, Unai Lataillade Aizpuruaren gidaritzapean.

zozketa egin zuten parte hartzaileen artean. Sarituetako bat, Udarregiko Eneka Muñoz izan

da. Aurtengoa igarota, 2019an Usurbildik gertu ospatuko da Kilometroak jaialdia, Zarauzko

Salbatore Mitxelena ikastolak antolatuko du. Informazio gehiago: kilometroak.eus

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City * Potxoenea
- * Sutegi liburutegia
- * Zubietako Almandegi taberna * Aginagako Arrate egoitzan

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik!

tren eta autobus

Ainhoa Intxaurrendieta: “Guk bagenekien ondo jokatu genuela”

Espainiako Kontu Auzitegiak arrazoi eman die Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko (GHK) lehendakari izan zen Ainhoa Intxaurrendietari eta ingurumeneko foru diputatu izandako Iñaki Errazkini. Erraustegia geratzea ez zen delitua izan. Are gehiago, geratu izana egoki ikusi du aipatu epaitegiak, besteak beste, gairadimentsionatua zegoela baitio. Epaia atera berri den honetan, Ainhoa Intxaurrendieta elkarrizketatu dugu.



“Guk ondo egin genuela eta arrazoi genuela dio epaiak. Guk maneiatu genituen argudio guztiak ontzat ematen ditu”.

NOAUA! Arrazoa ematen dizue epaiak. Epaia ordea haratago doa. Besteak beste, garai hartan eraiki nahi zen erraustegia gairadimentsionatua zegoela aitortzen du. Epaia, atzean dagoen gaiari heltzen dio zuzen zuzenean. Harridura sortu al dizue horrek?

Ainhoa Intxaurrendieta. Epaia bere osotasunean izan da harrigarria. Guk ondo egin genuela eta arrazoi genuela dio, eta gero bigarren zati hori are harrigarriagoa da. Gaiari heltzen dio. Guk maneiatu genituen argudio guztiak ontzat ematen ditu. Batetik, erraustegia gairadimentsionatua zegoela dio. Esaten du erraustegia ez zela bideragarria, niretzat hori da klabea. Bestetik, legegintzaldi honetan, guk swap-ak bertan behera uzteko epaitegiatara eraman genituen, eta legegintzaldi honetan, oraingo GHK-k erabaki zuen kontrako sententzia ez errekurritzea eta ontzat ematea. Orduan zuk ontzat ematen duzu, swap-ak ordaintzen jarraitzea kondenatzen zaituen epai bat. Gero zergatik eskatzen dizkiozu milioi horiek kontratu hori mozten ahalegin du direnei? Eta ez saiatu berriro behintzat berriro errekurritzen? Horrelako sententziak errekurrituta Auzitegi Gorenera iristen

AINHOA INTXAURRENDIETA

“Lehen babestuak sentitu baginen, orain are eta gehiago. Konturatzen zara gainera, kolore guztietako jendea dela zoriontzera etortzen zaiguna. Konturatzen zara azkenean, herritarrok defendatu genituela eta herritarrok eskertzen digutela”

dira eta azken urteotan swap-ak bertan behera uzten ari dira Gorenean. Eta hori epaiak ere esan egiten du. Orduan, diru galeraren ardura 2007-2011 legegintzaldian zeuden GHK-ko ordezkarien gain kokatzen du, eta baita oraingo ordezkarien gain ere. Hor bakoitzak bere ardurak hartu beharko ditu. Mendeku gose izugarriarekin saiatu dira gure kontra egiten, gure etorkizuna erabat txikitu nahi izan dute. Azkenean guk 40 milioi eurotik gora ordaindu behar izan bagenu, pentsa, horrek soldaten eta etxebizitzaren enbargoa ekarriko zuen. Azkenean denborak bakoitza bere lekuan jarri du eta diru galera horren erantzule bakarrak beraiek direla esaten du. Beraz, nik uste dut

hemen irakurketa asko dagoela, baina garrantzitsuena da oso ondo egin genuela, beste aukerarik ez zegoela eta besteak direla oker, elite ekonomiko baten mesedetan jokatzen ari zirenak.

Epai honek ardurak eskatzeko bidea zabaltzen al du?

Oraindik sententzia errekurritzeko 15 eguneko epea dute. Itxuraz, errekurritzeko asmoa dutela jakin dugu. Orain arte bezala, erabakiak hartzen joango gara. Egokiena egingo dugu. Ez dakigu nola egingo dugun, baina ardura horiek nik uste dut eskatu egin behar zaizkiela. Azkenean diru publikoarekin batera sartzen dugu joko zelaian, ingurumena kaltetzen duen azpiegitura bat eraiki nahi zela, horrek ere osasuna izugarri kaltetzen duela. Horrelako galera garrantzitsuak daude jakin egin behar da erantzuten, zergatik egin den hori, zergatik hartu ziren erabakiak erabaki okerrak zirela jakinaren gainean zeundenean, zergatik korrika eta presaka lotu zituzten gauzak eta irregulartasun eta ilegaltasun batzuk egin zituzten jakinik gaizki egiten ari zirela, dena lotuta uzteko. Ez dakit diru hori errekuperatzeko

baina galdera batzuei erantzun beharko lieketela uste dut.

Beste auzibide bat baduzue.

Beste auzibidea gai administratibo bat da. Demanda sartu ziguten Donostiako auzitegian, esanez erraustegiaren kontratua gaizki eten genuela, erabaki politikoa izan zela, ez teknikoa, ez gairadimentsionatua zegoelako. Donostiako auzitegiak esan zuen egia dela ez zegoela kontratu hori, guk ez genuela eskumenik apurtzeko eta erabaki politiko bat izan zela. Guk horri helegitea sartu genion eta Euskadiko Auzitegira joan zen auzia. Handik atera zenean, sententzia atera zen esanez baietz, GHK-rena zela kontratua apurtzeko eskumena, baina erraustegia gairadimentsionatua egon arren, guk erraustegiaren kontratua puskatu genuela, ez gairadimentsionatua zegoelako, baizik eta hondakinen kudeaketa eredu hori ez zaigulako gustatzen, erraustegiak ez zaizkigulako gustatzen. Hondakinen kudeaketaren gaineko erabakiak Batzar Nagusiei zegozkiela, ez GHK-ri. Eskumen kontua da, orain Auzitegi Gorenean dago. Hor ebatziko dena da, zeini zegokion kontratu hori apurtzea eta zergatik apurtu zen. Erakundearen artean, askotan gertatzen dira halakoak. Baina ez du inolako ondorio kaltegarri edo penalik.

Halere epai honek indartzuten du defentsa hori, esaten baitu zilegia dela erabaki politikoa izatea ere. Gu hauteskunde batzuetara aurkeztu bagara esanez erraustegia gelditu egingo dugula, zilegia dela gero gelditzea. Jendeak bozkatu gaituela horretarako eta are gehiago, ekonomikoki kalteak sortuko dituen. Orduan epai horrek ere are gehiago babestuko gaitu.

“Pastela berdinen artean banatu nahi dute, herritarron mesedetan egin ordez”

NOAUA! Aipatu izan duzue, zuen aurkako salaketarekin mezu argi bat bidali nahi izan zaiela herritarrei; erraustegiaren atzean dagoen negozioa ukiezina dela alegia. Zure ustez epai honek ukiezintasun hori hautsi du?

Ainhoa Intxaurrendieta. Horrelako proiektu eta makronegozioak oso oso blindatuak daudela pentsatzen segitzen dut. Baina epai honek herritarrok elkarrekin lan egiten badugu, horrelako makroproiektuen aurrean ere erabakiak har ditzakegula babesten du. Proiektuok ukiezinak bilakatu nahi dituzte baina azkenean beti daude zirrikituak. Guk momentu oro erabakiak hartu genituenean oso oso erabaki zorrotzak, sendoak eta ondo landuak izan ziren, juridikoki eta ekonomikoki oso ongi aztertuak.

Zure amonaren etxea, Zubietan, nola ikusten duzu?

Ikusten ari gara nola jokatzeko ari diren bai Donostiako EAJ-PSE udal gobernu eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Halako ingurune natural bat babestu eta altxor moduan tra-



Eragile anitzek erraustegia geratzeko Donostian antolatua duten manifestazioarekin bat egin dute Zubietan. Usurbildarren txanda ostegunean izango da, 19:30ean Mikel Laboa plazan.

AINHOA INTXAURRENDIETA

“Gure erabakiak zorrotzak, sendoak eta ondo landuak izan ziren, juridikoki eta ekonomikoki oso ongi aztertuak”

tatu ordez, nola txikitzen ari diren. Eta Donostia etxebizitzetaz masifikatzen, hotelak nonahi irekitzen... Argi dago zein den beraien kudeatzeko modua. Badakigu azkenean Loiolako kuarter zaharra edo Mar-

tuteneko espetxea Zubietara eramaten badituzte, Martutene edo Loiolako orube horretan milaka eta milaka etxebizitza eraiki nahi dituztela. Hori da beraien eredua. Gune natural txikitu, hiriguneak etxebizitzetaz bete, eraikuntza, zementua sartuz leku guztietan, eta azkenean, lehen aipatu dudan horretara bueltatzen gara. Hortik mesedetuak edo aberastuak betikoak ateratzen dira; enpresak, banketxeak... Azkenean pastela berdinen artean banatu nahi dute, herritarron mesedetan egin ordez.

“Behin geratu zen, bigarren ez ere gera daiteke”

NOAUA! Etsipen puntua bada kalean. Urriaren 27rako manifestaziorako deia suspertu dezake epai honek?

Ainhoa Intxaurrendieta. Bai nik behintzat esperantza hori dut. Uste dut bazegoela etsipen puntu bat. Bai 2013an gelditu genuen erraustegia, baina bigarrena eraikitzen ari dira. Eta gainera geratu zenutenok baduzue etorkizuna nahiko ilun, nahiko beltz. Orduan zein jarriko da horrelako ardura baten aurrean hurrengo erraustegiare-

kin erabakiak hartu behar direnean? Hori da pixka bat transmititu nahi ziguten mezua. Eta honek guztiak ematen duena kontrakoa da. Gauzak ondo egiten badira eta txukun lan egiten bada, beti aipatzen dut gauza bera; herritarrok benetan nahi badugu, herritarrok geldi dezakegu bigarren erraustegia eta geldi ditzakegu hainbat eta hainbat proiektu. Baina horretarako ezin dugu etxean geratu. Gure dirua, gure osasuna, gure ingurumena jokoan baldin

badago, denoi dagokigu kalera irteten eta honaino iritsi garela esatea. Epai honek horretarako indarra ematen digu. Behin geratu zen, bigarrena ere gera daiteke herritarrok hala nahi badugu.

Deialdi garrantzitsua urriaren 27koa, are gehiago erraustegiaren aurka dauden eragileak bateratu diren honetan?

Hori funtsezkoa dugu. Hitz egiten dudan bakoitzean beti esaten dut, helburu amanko-

“Garaiz gaude arazoa berbideratu eta soluzioak bilatzeko”

“Sententziak argi uzten du, EHBilduren jardun politiko guztiaren helburua zela, gipuzkoar guztien interes ekonomiko, ingurumenezkoak eta osasuna bera babestea eta zaintzea”. Hala adierazi zuten epaia atera berrikan, Gipuzkoako EHBilduko ordezkariak, txalo artean hartu zituzten Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Errazkinekin batera egin zuten agerraldian.

EAJ eta PSE-k defendatzen zuten interesa ordea beste bat zela gaineratu zuten, “herrialde eta kanpoko elite ekonomiko eta enpresariaren interesa babestea”.

Bestalde, “sententziak ere esaten du hartutako norabide okerra zuzentzeko aukera ere izan dutela, baina nahia-go izan zutela ez egin, nahia-go izan zutela bankuen eta eraikuntza enpresa handien interesak defendatu eta horretan jarraitzea”.

Aurrera begira, Juan Karlos Izagirrek zioenez “Gipuzkoar guztientzat, onena izango den soluzioa aurkitu behar dugu, konfrontaziorako bideak baztertuz”.

mun bat baldin badugu, denok elkarrekin lan egin behar dugu. Zaila izango da, ez da batera erraza izango eta urteotan erakutsi digute. Argi dugu batzuk modu batera ikusiko dutela edo planteatuko dutela borroka hau, beste batzuk beste era batera. Baina modu bakarra da denok bat egin, helburu amankomun horren mesedetan eta denok batera atera kalera eta ez etxe zuloan geratu. Herritarrok daukagu indarra, hitza eta erabakia horretarako.

Tipi-tapa, Buruntzaldea ezagutzera

Pausoz pauso, ibilian Buruntzaldea barrutik ezagutzeko gonbita luzatzen digute Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, eskualdeko mendizale taldeen laguntzaz iganderako, urriaren 21erako antolatu duen Buruntzaldeko 11. Ibilbide Egunean.

Ekimen honi esker, "lehiazteko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Bidezidor eta bideak ditugu (bost ibilbide daude aukeran), landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatzeko eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz".

Motxila opari

Partaide bakoitzak abiatzen denean txartel bat jasoko du, irteerako herriak zigilatuta. Bi ibilbide egiten dituenak



Igande honetan ospatuko da Buruntzaldeko XI. Ibilbide Eguna.

IGANDEAN, GOIZ PASA

"Buruntzaldea eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu. Edozein publiko motarentzat egokia"

motxila bat jasoko du opari. "Salbuespenak, Andoain-Lasarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak dira, edozein norabidean eginez gero aipatutako motxila lortuko baitu". Itzulerarako ohi bezala, autobus zer-

bitzua antolatu da.

Adi panelei

Ibilbideetan ez galtzeko, "ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude, bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak. Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude".

Informazio gehiago buruntzaldea.eus atarian jaso dezakezue. Bertan, ekimen ho-

nen nondik norako guztien berri jasotzen duen app bat jaitsi dezakezue mugikorretarako.

Buruntzaldeko Ibilbideen

11. Eguna

- Eguna: urriak 21, igandea.
- Orduategia: 08:00-14:00.
- Tokia: Buruntzaldea (Aginaga, Usurbil, Lasarte-Oria, Urnieta eta Andoain).
- Herri bakoitzaren koloreak:
 - Andoain: urdina.
 - Lasarte-Oria: urre zaharra.
 - Urnieta: berdea.
 - Usurbil: laranja.

Informazio gehiago:

buruntzaldea.eus

Antolatzaileak:

Buruntzaldeko Udalak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

Laguntzaileak:

Andatza M.K.T. (Usurbil), Euskalduna Mendigoizale Taldea (Andoain), Ostadar S.K.T.-ko mendizaleen sala (Lasarte-Oria), Super Amara (kontrol guneetako jan edanaren hornitzailea), Eusko Jaurlaritzak.

Sei ibilbide ezberdin aukeran

Itzuli handia:

■ Buruntzaldeari 27 kilometro bira oinez 8:00etan Lasarte-Oriatik. Ostadar S.K.T.-ko mendizaleen saila arduratuko da irteeraz.

Andoain-Lasarte-Oria:

■ Ibilbide urdina eta urre zaharra; 7,9 kilometro; oinez egitekoa, mendiko oinetakoak beharrezkoak. Ibilbidea osatzeko bi aukera: Buruntza mendiko gailurra eginez edo mendia inguratuz.

Andoain-Urnieta:

■ Ibilbide urdina eta berdea; 4,8 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oine-

takoak beharrezkoak.

Andoain-Usurbil:

■ Urdina eta laranja; 14,9 kilometro Andatzatik barrena; oinezkoentzat soilik, mendiko oinetakoak beharrezkoak.

Lasarte-Oria-Urnieta:

■ Ibilbide urre zaharra eta berdea; 3,9 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak beharrezkoak.

Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga: (Santuenetik barrena, Mapileraino):

■ Urre zaharra eta laranja; 9 kilometro; oinez edo bizikletaz egitekoa, kirol oinetakoak be-

harrezkoak.

Oharra: partaide batek bi ibilbide eginez gero, oroigarri moduan pontxo bat jasoko du opari. Andoain-Usurbil eta Andoain-Lasarte-Oria ibilbide osatzen dituztenek baita.

Kontrol guneak eta anoa (argibideak emateko eta moka-duk eta edateko banatzeko):

- Usurbilen: Santueneko auzoko Zorrotzeko zubiaren parean eta Aginagan, Mapil inguruan.
- Andoainen: udaletxe azpian.
- Lasarte-Orian: San Pedro elizaren ondoko plazan.
- Urnietan: udaletxe azpian.

Itzulerarako autobus

zerbitzua:

- Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.
 - Usurbil, San Inazio biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.
 - Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
 - Andoain, Goiko plazaren atzealde: 12:30, 13:30, 14:30.
 - Urnieta, Kioskoko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40 (zerbitzua-aren amaiera).
- Oharra: partaide bakoitzak txartela jasoko du abiatzen den lekuko zigiluarekin. Amaieran nor bere herrira itzultzeko autobus zerbitzua baliatu ahal da, baina ezinbestean aipatu txartela erakutsi beharko da.

Exposito eta Alduntzin nagusitu ziren Aginagako Pilota Txapelketan



Txapela jantzita ageri den bikotea aise nagusitu zen finaleko partidari. Exposito-Alduntzin 22 / Prieto-Zezeaga 9, azken emaitza. Argazkia: Ion Markel Saez de Urabain.

Andatzakoak, Euskaraldiarekin bat



Pasa den asteburuan, Hecho inguruan ibili ziren Andatza mendi taldekoak. Cuta mendiaren gailurrean egina dago argazkia.

Estitxu Berasategi, Madrilera

“WC 2012” erronkari begira, urriaren 21etik 24ra Madrilan antolatu duten kontzentrazioa deitu dute Bera Bera eskubaloi taldeko Estitxu Berasategi.

Eskubaloi partidak Kiroldegian

Urriak 20, larunbata

- 09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Urmieta 5B Udarregi 6A-Udarregi 6C
- 10:30 Infantil neskak: Udarregi B-La Salle
- 11:45 Infantil neskak: Udarregi A-Ereintza
- 13:00 Infantil mutilak: Udarregi B-Eibar
- 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Pulpo
- 17:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Pulpo
- 19:00 Senior neskak, Territoriala: Usurbil K.E.-Munttarpe

Urriak 21, igandea

- 11:30 Kadete mutilak, Territoriala: Usurbil K.E.-Ereintza

Futbol partidak

Haranen

Urriak 20, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: Udarregi Usurbil F.T. B-Billabona K.E.
- 12:00 Jubenilak: Usurbil F.T.-Lazkao K.E. B
- 15:30 Erregionalak: Usurbil F.T.-Lengokoak
- 17:45 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Billabona K.E. A

Pilota Aginagan

Gipuzkoako Txapelketa

Urriak 18 osteguna, 21:00

Paleta Gomaz Nagusiak, 1. Maila: PAGA ZPE (Esnaola-Errasti) Azkoitia

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitza 60m² eta garajeak 22m².

Tel. 688866968 3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukalde, 2 komun, egongela. 11 m²- terraza, 8 m² trasteleku eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egon-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

gela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

MOTORRA

Salmenta,
garajeak

Camper furgoneta salgai. 2007koa, 130.000km. Oso egoera onean. Duxa, ohea, frigora, armairuak, termikoki aislatua, mahaia, argiak, aurreko eserlekuak biragariak... (679471831 Jon)

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2.

676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatz 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretse-gian. info@restaurantearatz.com

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da asteburuetarako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, arratsalde edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziarik. 662 910 181

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatrico eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde.



Zorionak

Hegoa! Lau urteak irribarretsu ospatu genituen urriaren 16an. Muxu potolo bat etxekoan partez.



Zorionakkkk Dane!!

8 urte egin dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Iraia! Gure

etxeko lorerik ederrenak 5 urte bete ditu! Jarraitu horrela gure egunak alaitzen. Askoi maite zaitugu! Ama, aita eta Uxia.

Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldean. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketeta lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketeta lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketeta lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna

edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketeta lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketeta lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketetan. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta asteleneretik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen,

garbiketeta lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketetan lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketetan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketeta lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

BESTELAKOAK

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan 696014585

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

14 bat urteko eta eskumuturraren tamainako dordoka galdu dut. Babilio sentimental handia du. Aurkitu baduzu: 663 065 460.

Zapi bat galdu da, beisa eta granatea, Noauara ekarri mesedez.

Mandarina japoniarrek saltzen ditut: 659 18 51 07 (Jose Antonio).

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpurua Okindegitik pasa, bertan dago.

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneretik ostiralerara: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 18 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 20 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 21 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 24 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Urriak 18 - Urriak 28

Osteguna 25 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 26 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 27 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 28 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda urria

19 ostirala

- **Malabare tailerra Bihurri ludotekan.** 17:30ean.
- **Tadamun-en aurkezpena eta hitzaldia** 19:00etan Sutegin.

20 larunbata

- **Harria Hitz ibilbide gidatua.** 10:00etan frontoitik abiatuta.
- **Tailerra: "Zure ametsetako gela".** 10:00etan Aginagako ludotekan.
- **Mundualdia.** Egun osoko festa frontoian.

21 igandea

- **Buruntzaldeko Ibilbideen 11. Eguna.** Ikus 19. orrialdea.
- **Mundualdia: "La mochila invisible" dokumentala.** 18:00etan Sutegin.
- **Giula Biagettiren organo kontzertua.** 19:00etan Salbatore Elizan.

Igande honetan, organo kontzertua Salbatore Elizan

Giula Biagetti musikaria Euskal Herrian da egunotan. Italiako Lucca hiriko katedraleko organista titularra da. Larunbat honetan Azkoitian arituko da Biagetti, Organo Erromantikoaren Nazioarteko XIX. zikloaren baitan. Igandean, kontzertua eskainiko du Salbatore elizan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da emanaldia.

Giula Biagettiren kontzertua

- Urriak 21 igandea, 19:00etan.
- Tokia: Salbatore elizan.
- Sarrera, doan.
- Antolatzailak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Usurbilgo Udala, Usurbilgo Parrokia.



Giula Biagetti italiarrak eskainiko du kontzertua.

Ziortzako ikasturtea hastera doa

Lehenengo saioen ordutegiak, hauexek:
DBH 1-2: Urriak 19 ostirala, 20:00.
DBH 3: Urriak 19 ostirala, 20:30.
DBH 4: Urriak 26 ostirala, 21:00.
Jubenilak: Urriak 19 ostirala, 21:00.

Urriaren 19an, malabareak ludotekan

"Ikusi eta ikasteko!" malabare tailerra antolatu du Bihurri ludotekak hurrengo asterako. Urriaren 19an ostirala, arratsaldeko 17:30ean hasiko da taillera.

Datozenak

Datorren astelehenean, furgobaratzaren bisita

Urriaren 22an, Furgobaratzaren bisita jasoko dute Usurbilgo Baratze Parkean. 18:00etatik 19:30era egongo da bertan.

Iñaki Agirresaroberen erakusketa

Usurbildarrak argazki erakusketa berria antolatu du Sutegin; "Udazkeneko eguzki izpiak" izenekoa, urriaren 22tik 31ra bisitatu ahaliko duzue, kultur etxeko erakustaretoan. Udazkenak eskaintzen dituen koloreen argazki erakusketa jarriko digu ikusgai ordutegi honetan: 18:00-20:00 artean.

Arantxa Urretabizkaia Irakurketa Topaketan

Hondarribiko alarde parekidean Urretabizkaia berak bizitakoaz mintzo da Bidean ikasia (1993-2016) liburuan. Yolanda Arrietak zuzenduko du solasaldia. Urriaren 24an asteazkena, 19:00etan Sutegiko liburutegian.

Datorren kantu-jira, eguerdiz

Urriaren 27an larunbata, 12:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

2017
USURBIL

ARRANDEGIA PELLO

ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA,
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTA PAX 7, 943 54 37 94

ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil



Lukainkategi Erreategia



Geure plateren zapore paregabeak, Añorgan jateko aukera
hoberenen artean kokatzen gaitu.
Usurbiletik oso gertu, Txikierdiko aldapatik gora kotxez 3 minutu!
Asteaz zehar eguneko menu zabala dastatu dezakezue eta asteburuan karta
bikainaz gozatzeko aukera duzue.

Aingeru Zaindaria bidea 85, 20018 Añorga Tel. 943 37 14 44

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ



**ANIMA ZAITEZ!
EMAN IZENA!!!**



Izen-emateko aukerak:
eskaneatu azaltzen den QR kodea edo
Noaua-n, Potxoenean edo <https://izenematea.euskaraldia.eus> weborrian

**2018KO AZAROAREN 23TIK
ABENDUAREN 3RA**

Etorri gurekin Urbilen abestera!



KARAOKE + PHOTOCALL

URRIAK 27 | 12:00

Beraiekin eszenatokian abesteko VIP sarrerak lortu itzazu. Informazio guztia www.urbil.es-en kontsultatu.

**SARRERA
DOAN!**



Benetako
UNEAK

urbil.es